

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Guk sortutako aplikazioarekin hainbat faktoreri konponbidea edo erraztasuna emango diegu. Adibidez, zerbitzuaren azkartasuna hobetuko dugu, hau da, zerbitzuak normalean baino azkarrago eskuratzeko aukera emango dugu. Horrekin batera, bezero guztien beharrak eta nahiak asetzen saiatuko gara, bezeroak nahi duen zerbitzua eskainiz. Halaber, interneten bilatu behar ziren zerbitzu bakoitzaren zenbakia eta web orri bakoitza bakarka bilatu beharrean gure aplikazioan denak batera eskuratuko dira.

Horrenbestez, konpondu nahi degun arazoa, erosotasun falta da. Gure aplikazioan klik bat eginez dena eskura izango dute erabiltzaileek. Horrela, ez dute denbora galduko enpresa bakoitza bilatzen, dena app eroso batean izango dute.

Alderdi berritzailea, orainarte egon ez den zerbitzu multzo bateratu bat eskaintzea da. Lehenago azladu den bezala, denbora aurrezten duen tresna sortu dugu. Badira dagoeneko antzekoak diren aplikazioak, esate baterako, Amazon. Baina, bezeroak nahiko luken edozein zerbitzu eskaintzen dituenik orainarte ez da sortu, guk egingo dugun harte alegia.

Prezioari dagokionez, weborrian sartzea don izango da eta honen erabilera ere bai. Ordaindu beharko dena zerbitzua bera izango da eta janaria edo arropa erosiz gero hori ere ordaindu beharko dute erabiltzaileek. Aipatu bezala, prezio asegarriak eskainiko ditugu eta deskontuak ere egongo dira.

Azkenik, kontratatuko dugun informatiko batek diseinatuko du aplikazioa. Posible den errazena izateko ahaleginak egingo ditu, pertsona guztientzat erabilterraza suerta dadin. Helburua, ahalik eta jende gehienek hau erabiltzea izango da beraz, diseinu eta antolaketa ulergarria izan beharko du. Horrez gain, aplikazioa segurua izango dela ziurtatuko du eta hackeatzeko zaila izango den bat sortuko dugu.